

URDULIZ

HERRIRIK HOBERENA



Egileak:

UrrduliztarrakBetiko

LH5B



Ikastolen Elkartea

URDULIZ gozatu

Lucky



Aurkezpena

Kaixo lagunok! Ni Lucky naiz. Oso alaia eta dibertigarria naiz. Asko gustatzen zait jendearekin jolastea. Eta ni zuen gida turistikoa izango naiz, jendearekin egotea asko gustatzen zaidalako.

Ongi etorri!

Â¡Bienvenidos!

Welcome!

ONGI ETORRI GURE HERRIRA ETA ZATOZ GOZATZERA!!!

Presentación

Hola amigos, me llamo Lucky. Soy muy alegre y muy divertido. Me gusta jugar con la gente. Y voy a ser vuestro guía turístico, porque no quiero estar solo. Â¿Os gustaría disfrutar de mi pueblo?

URDULIZ

begirada batean



Kokapena

Urduliz Bizkaian dago, Euskal Herriko ipar mendebaldean. Kokatuta dago. Urdulizek herri hauek ditu mugakide: Plentzia, Barrika, Erandio, Laukiz, Gatika, Sopela eta Berango.

Erliebe-elementuak

Urdulizek honako erliebe elementuak ditu: Butroe ibaia eta Kukatze eta Tarigua errekek ditu, Butroi ibaiarekin batzen direnak. Horrez gain, Butroi mendia.

Bestelako informazioa

Urdulizen hedadura 7,51 km² da eta 5.247 biztanle ditu.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Santa Marinako haitzak



Santa Marinako haitzak Urdulizeko goiko aldean kokatuta daude, ospitaletik hurbil.

Santa Marinako haitzen ekosistema mota haitzaz egindako mendia da.

Bertako animalia hauek dira: armirra, arraboia, inurriak, tximeletak, erleak, hontzak eta urtxintzak. Bertan topatu ahal ditugun landareak hauek dira: Daisy lorea, belarra, huntza eta goroldioa.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Butroe basoa




Butroe basoa, Butroe gazteluaren mendebaldean kokatuta dago.

Butroe basoaren ekosistema basoa da.

Bertan topatu al diren animaliak hauek dira: inurriak, txantxangorria, zapaburuak, ehunzangoak. Bertan topatu al diren landareak hauek dira: belarra, lezkak, haritzak, goroldioa, huntza eta Daisy lorea.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Memoriaren parkea



Memoriaren parkean aurkitu ahal diren hiru eskulturen izenak: Luis, Manu eta Eustakio dira. Hiru eskulturen eta parkea egin dituen arkitektoaren izena Luis Saitua Muñoz da.

Parke hau burdinezko gerrikoaren existentzia gogoratzeko erabili nahi diren hiru eskultura daude. Herria defenditzera atera ziren hiru gudari anaienezat omenaldi bat da.

Eskultura hauek Santa Marinako haitzen alboan daude, Memoriaren parkean.

Â

Â

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


Ibilbidearen amaiera



Gure azken ibilbidearen amaiera eskulturaÂ Nestor Basterretxeak egin du. Artistak dio Â bide guztiak heriotzan amaitzen direla, horregatik eskultura honen izenburua.

Artistaren ondarea, Urdulizen dugun hilerri berrian kokatua dago.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Santa Marinako haitzetatik Memoriaren parkera joateko ibilbidea.

□ Deskribapena

- Santa Marinako haitzetatik, Memoriaren parkeraino joateko bide bat dago. Bertan zaudela, aurrera jarraitu. Izar zuria aurkitzen duzunean, Memoriaren parkean egongo zara.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Memoriaren parketik Gure azken ibilbidearen eskulturara joateko ibilbidea.

Deskribapena

- Memoriaren parketik eskumara biratu eta hortik aldapan behera joan beharko zara. Zure atzean edifizio batzuk daudenean, izar zuria eta izar morea aurkituko dituzu. Bertan, Urdulizeko hilerria egongo da eta bertan, gure azken ibilbidearen eskultura aurkituko duzu. Hilerria Elortza auzoan dago.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Gure azken ibilbidearen eskulturatik Butroi basoraino joateko ibilbidea.

Deskribapena

- Urdulizeko hilerritik gezi berdeak jarraituta Butroi hipikaren albotik pasatu beharko zara. Ondoren, Butroi auzotik aurrera jarraitu beharko duzu. Hor zaudela Butroi gaztelua aurkituko duzu aurrez aurre, Butroi basora heltzeko ezkerrean biratuko duzu eta aurrera jarraituko duzu izar zuria aurkitu arte.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



Urduz ezagutzen jarraitu...

Deskribapena

Guk zirkuitu turistikoa egin beharrean, ibilbidea egin dugu. Ibilbidea bukatuta, zuen kabuz herria ikertzen jarraitzeko...

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da),

Deskribapena

Guk zirkuitu turistikoa egin beharrean, ibilbidea egin dugu. Ibilbidea bukatuta, zuen kabuz herria ikertzen jarraitzeko...

Bisitarientzako gomendioak

Ez bota plastikoa lurrera, lur azpiko urak kutsatzen direlako.

Euritakoa ekarri, Euskal Herrian euria ugaria izaten delako.

No os colgueis de las ramas de los árboles porque las ramas se rompen.

No os subais a los monumentos históricos porque se pueden romper.

Don't feed the animals, because the animals can die.

Don't make a lot of noise, because you can disturb other people.